

BILBO EUSKALDUNTZEN

Ibon Arburu

Bilbon ez da inoiz gaur beste eta hain ezagupen maila altuagorekin euskaldun egon; izan ere 34.000 euskaldun bizi da Bilbon, baina euskararentzat ez dago lekurik Bilboko bizitza sozialean. Ez dira hamarretik batera iristen euskara ezagutzen duten biztanleak eta euskaldun horietatik heren batek erabiltzen du euskara kalean.

Katastrofismoan erori gabe, esan dezagun Bilbok oso abiapuntu kaskarra izan duela eta beharrezkoak diren neurri guztiak hartuta ere, prozesu hau arreta bereziz jarraitu behar dela, ia hilik zegoen landareari jairo zaizkion kimu berriak zimel ez dakizkion. Izan ere, hainbeste kostatako aurrerapenak erraz gal daitezke normalizaziorako indar guztiak martxan jartzen ez badira edo lortutako emaitzei eusteko ahaleginak egiten ez badira.

Bilboko edozein esparrutan euskaraz mintzatzeko izugarritzko zailtasunak daude. Euskararen presentzia, marjinala eta guztiz minoritarioa da. Bilbora datorkeen arrotzak, egunak igaro litzake euskararik entzun gabe. Euskara leku eta harreman tradizionaletan erabiltzen da gehienbat: familia mailako erabilera izango da altuenetakoa, familia izan bait da garai txarretan euskararen transmisio eta erabilpenaren euskarri eta gordeleku.

Erdararen presioak ito egin du euskara. Bilboko kasuan, euskaraz bizi nahi duen nukleo bat nabari da alor eta harreman guztietan, zenbaitetan zailagoa egiten zaion arren. Nukleo hori ordea bere sendotasunean ere oso txikia da, eta erderaren presioa izugarria izanik, Bilboko euskarak katakunbetan bezala irauten duela esan genezake. Eta katakunbetatik egun argira ateratzeko neurri egokiak hartu beharko ditugu, bai administrazioak (udalak bereziki) eta baita Bilboko euskaldungoak.

Bilbo Euskalduntzen-en sorrera

1990ko Urtarrilean sortu zen Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakundea, egun Bilbo Euskalduntzen deritzana. Hasieratik nahitaez landu beharreko hiru aspektuz jabetu ginen: euskaldun hizkuntz komunitatearen trinkotzearen garrantzia, erdaldunekiko irradiazio lana eta elkarlanaren bidearen jorraketa. Lan ardatzak hauek izanik, hauetara egokitu ditugu gure eginkizunak, Bilboko egoera soziolinguistikoa kontutan harturik: egindako lana motibazioari begira egin da gehienbat.

Euskararen alde dihardugun neurrian honako hauek dira gure helburu orokorrak: Bilboko bizitza euskalduntzea, hiri bizitzako esparru berriak irabazi euskararentzat, euskararekiko motibazioa eta bere erabilera eta ezagupena bultzatzen saiatzea, prozesu integratzaile bati ekitea, erdaldunak euskararekiko jarrera positiboetara eta ezagupenera erakarrit, eta mota eta adin guztietako

euskaltzaleak bildu euskararen aldeko ihardunean bat eginez.

Lehen esan bezala, hiru dira landu beharreko aspektuak:

1) Bilboko euskal hiztunak trinkotzearen garrantzia: Lehenbizi ahalik eta hizkuntz komunitate trinkoena osatu behar dugu, ahalik eta euskaldun gehien erakarriz. Bidaia honetan guztiok izan behar dugu gure txartela: talde, erakunde, pertsona, sektore,... azken finean ekintza kolektibora jauzia egiteko prest gaudenok. Asmo honen muina zein da? hiztun osoak biltzea, esparru sinbolikoa nuklearizatu eta artikulatzea, hizkuntzaren barne dinamika berri bat martxan jarriz. Bilboko euskaldunen hizkuntz komunitatea desegituratuta eta desorekatuta dago. Komunitate horren erdigunea ez bait dute hiztun osoek okupatzen, baizik eta hizkuntza aldetik desnatibizatuak edo deserrotuak diren jatorrizko bilbotar euskaldunek. Horrela, hizkuntz komunitatearen erdigunea "jaten" diete berez dagokienei, euskaldun osoei, alegia, eta ondorioz Bilboko hizkuntz komunitatea desegituraturik geratzen da.

Beraz, egituraketa lanari ekin beharra dago. Bilboko hirian, sakabanaturik ezezik, elkarren berri jakin gabe aurkitzen diren euskaldunak, konpaktazio edo trinkotze prozesu baten bidetik abiatuz, Bilboko hizkuntz komunitate hori euskaraz bizi ahal izan dadin berregituratzen hasi beharra dago. Horretarako, gaur egun Bilboko hirian zenbat euskaldun dauden, non bizi diren, zein ezaugarri sozio-demografiko duten eta, zer nolako hizkuntz gaitasuna duten, Siadekok egindako Azterketa Soziolinguistikoari esker jakin ahal izan dugu. Orain, euskaldungo horren hizkuntz gaitasun eta ahalmenak optimizatzeari ekin behar zaio, euskaldunok euskaraz biziz eta euskararen aldeko presio soziala handituz. Honetarako beharrezkoa da euskaldun pasiboak konprometituak bilakatzea.

Kompaktazioa ez da parametro idologikoetan kokatu behar besterik gabe, herri mailako sektore ezberdinetako jendea inplikatu behar da; pertsona hauek ez dute inongo ordezkariarik nahitaez izan behar, baina beharrezkoa da beraien eritzia, jarrera eta lana eraginkorra izatea ingurune zehatz horretan.

2) Bilboko erdaldungoarekiko irradiazio lana: Bilbon gehiengo nabarmena osatzen duten erdaldunei sentierazi behar zaie euskararen presentzia eta euskarara hurbil daitezen gonbitea luzatu behar zaie. Euskal komunitatean integratu nahi dutenei bideak jarri behar zaizkie.

3) Erakunde publikoekin (udalarekin bereziki) elkarlana: Herritarren eskuhartzea ezinbestekoa da euskalduntze prozesuan. Gizarteak ez badu euskararen erronka bereganatzen, alferrik izango dira administrazioetik edo euskararen aldeko taldeetatik bultzatutako ahaleginak. Udal mailan euskararen erabilpena normalizatzeko herritarren eskuhartzea derrigorrezkoa den bezala, gizartean ere nahitaezkoa da euskararen aldeko herri dinamika bultzatzea eta Udal mailako lanekin koordinatzea. Elkarlanak ez du baztertzen bakoitzak bere jokabideak edukitzea: bakoitzak bere lekua, erantzunkizuna eta eginkizuna du. Azken finean, herri ekimena da, euskararen iraupena eta berreskurapena zihurtatuko dituen.

Bilboko Udalak, euskalduntze prozesuan eredu izateaz gain, bultzatu egin behar du udalerriko normalizazio prozesua. Hala ere, esperientziak garbi frogatu du Udala ezin dela gizarte sektoreen euskalduntze prozesuaren motore izan,

bultzatzaile eta babesle baizik. Sektore bakoitzak antolatu behar ditu bere euskalduntze egiturak eta egitasmoak, normalizazio prozesuaren motore bihurtuz. Udalak, Bilbon euskararen erabilpena areagotzeko asmoz sortutako erakundeei laguntza eta babesla eskeini behar die. Ahal dela, Udalak talde horiekin batera garatu behar ditu bere egitasmoak, bide batez Euskara Batzordea indartuz, berrantolatuz, funtzio berriak eskeiniz. Beraz, Udala eta herritarren arteko elkarlana eta osagarritasuna lortzera jo behar da.

Bilbo Euskalduntzen bitarteko

"Bilbo Euskalduntzen" aurretik aipaturiko hiru helburu hoiek betetzeko asmoz sortu zen. Lehen pausuan, sektore ezberdinetako euskaltzaleak biltzen hasi ginen; sail ezberdinak bereiztu genituen eta lanean hasi ginen: **Irakaskuntza saila:** Elkarlan, AEK, Labairu, Euskerazaleak erakundeekin lan egiten dugu. **Hezkuntza saila:** Guraso, enpresa garrantzitsuen (BBK, Correos, Telefonica, Corte Inglesa, Aurora Polar, Ecuador Bidaia, Eusko Trenbideak,...) batzordeak osatzen dituzten sindikatu ezberdinetako ordezkariekin. **Kultur saila:** dantzari, kantari, bertsolari, idazleekin.

Bigarren pausuan sail bakoitzak bere programak edo ekintza puntualak prestatu izan ditu. Ondoren, Udalarekin hitz egin ostean pentsatutako hainbat egitasmo burutu da.

Egia esan, orain arte egindakoaren balorazioa ona da, baina egin behar den lanaren zailtasunak aurretik aipatu hiru lan ardatzak bete ahal izateko sakontasun handiago bat eskatzen du. Zailtasun hori dela eta, askotan gure ekimen ahalmena zeregin puntualetara mugatu da.

Kanpaina puntualen dinamika gairatu beharra dugu, Bilbon euskararen normalizazioak eskatzen duen iraunkortasuna eta eraginkortasuna lortzeko bideak jorratuz. Sektore eta esparru ezberdinetako euskaldunak martxan jarri erazi eta koordinatzea ezinbestekoa da, horrela erreferentzi gunea sortzen delarik.

Guzti hau bermatzeko, nahitaezkoa da zabaltasunez jokatzeko, kontutan hartuta zabaltasuna ez dela maila ideologikoan baino planteiatu behar, hau garrantzitsua bada ere, are gehiago Bilboko sektore eta esparru ezberdinetako euskaltzaleak, normalkuntzarako behar den guztia landuz eta proposatuz. Elkar deskalifikatzeak ez garamatza inora, azken finean euskarak guztion beharra dauka eta guztiok dugu euskararen beharra. Bilboko euskaldunon ahaleginek indarra biderkatzailea izatea lortu behar dugu, eta gure eguneroko lana ahalik eta euskaldungoaren antolakuntza maila sendoena lortzea da.

Gure ustez bi dira landu eta sakondu beharreko bideak, esandako guztiari erantzuteko ahalmena izan nahi badugu behintzat:

I) Esparru ezberdinetako euskaldunen inplikazioa eta antolaketa.

Esparru ezberdinetan (irakaskuntza, euskalduntze eta alfabetatze lanetan dihardutenak, entpresak, merkatalgoa, zerbitzuak, kultura) euskararen aldeko dinamika sortu eta mantendu egin behar da, esparru zehatz bakoitzean dauden euskaldunak motore izan behar dutelarik. Tokian tokiko, euskaldunen inplikazio eta

partehartze iraunkorra ezinbestekoa da, toki bakoitzak eskeintzen dituen baldintzak kontutan harturik ahalik eta ondoen antolatuz.

Bilbon euskaldunen kopurua gehiagotzea garrantzi handikoa bada ere, Bilboko euskaldunak euskaraz bizi daitezen lortzea eta horretarako bideak jartzea berehala landu beharreko lana da. Zenbat eta gune eta esparru gehiagotan ahalbideratu euskaraz bizitzea, orduan eta indar handiagoa izango du euskarak, eta jendeak euskararekiko izan lezakeen jarrera hobetzen lagungarri gerta daiteke.

II) Norbanakoen inplikazioa.

Sektorekako antolaketa bezala, ezinbestekoa da norbanakoaren inplikazio eta partehartzea. Beharrezkoa da Bilbon euskararen alde urtetan lanean ibili den jendearen eritzia eta laguntza, gazteen aportazioa ere kontutan hartu beharrekoa da ... Kolore guztien gaineratik, euskaldunok ahalegin berezi bat egin behar dugu Bilbon euskarak bizi duen egoera larriari aurre eginez, elkarlanaren ildotik. Iharduera zabal honetan gizartean nolabaiteko ospea duten norbanakoen presentzia eta inplikazioa nahitaezkoa da, egiten denari eman diezaioketen prestigioa dela eta: pertsona ospetsuen presentziak hainbat jarreretan eragina izan dezake eta erabat lagungarria eta eraginkorra izan daiteke helburuak bete daitezen.

Bilboko euskararen normalizazio prozesua euskaldunok bultzatu behar dugu, ez zaigu inondik helduko irtenbidea, guk bilatu behar dugu. Irtenbideak aurkitzea gure eskuetan dago neurri handi batetan. Euskaldun osoak aparte, euskara erdi ahaztuta daukatenek edo euskara ikasten dihardutenek 75.000 pertsonetako gune bat osatzen dute: Bilbon "zerbait" dakitenen kopurua alde batera edo bestera jotzeak euskalduntze prozesua bidera edo desbidera dezake.

Beraz, beharrezkoak diren bitartekoak jar ditzagun ahal dugun neurrian eta aurre egin diezaiogun Bilbon euskarak bizi duen egoerari elkarlanari ekinez.

Ibon Arbulu
Bilbo Euskalduntzen-eko koordinatzailea